

## ASTE NAGUSIKO XXVIII. ARRANTZA TXAPELKETA

### MIGUEL ANGEL FERNANDEZ MEMORIALA

Donostia/San Sebastián Festak unitateak, Gipuzkoako Arrantza Federazioaren laguntzarekin, XXVIII. Arrantza Txapelketara deialdia luzatzen du. Txapelketa abuztuaren 16an izango da, 10,00etatik 13,00etara. Hona hemen

#### OINARRIAK

##### 1. Bi kategoria ezarriko dira:

**Haurrak:** Txapelketa egunean 15 urte bete gabe dituztenak.

**Helduak:** Txapelketa egunean 15 urte beteta edo gehiago dituztenak.

##### 2. Haurren kategoriako txapelketan bete beharreko arauak:

**Arrantza gunea:** Santa Katalina zubiaren hegoaldea, Maria Kristina zubiaren iparraldea eta Frantzia pasealekuaren aldea.

**Arrantza postuak:** Arrantza postuak libreak izango dira. Arrantzaleen arteko distantzia 2 metrokoa izango da, gutxienez.

**Arrantza egiteko modua:** Arrantza jaurtiketakoa izango da bakarrik. Gehienez hiru amu dituen kanabera bakar bat erabiliko da.

**Piezak:** 50 gramo baino gehiago pisatzen duten pieza guztiak onartuko dira.

**Puntuazioa:** Onartutako piezek pisatzen duten gramo bakoitzeko puntu bat lortuko da.

**Biltzeko tokia:** Frantzia pasealekuan, egongo den etxetxoan, proba hasi baino orduete lehenago (09:00 orduetan).

##### 3. Helduen kategoriako txapelketan bete beharreko arauak:

**Arrantza gunea:** Urumea ibaia itsasoratzen den tokia (bi aldeetan). Pasealeku Berriko lehen biribilgunetik Akuariora doan aldean, eta Zurriolako kaimuturreko zati batean, (oinezkoentzat bakarrik ez den zatian, alegia) ezin izango da arrantza egin, ez eta harkaitzetatik ere.

**Arrantza postuak:** Arrantza postuak libreak izango dira. Arrantzaleen arteko distantzia 2 metrokoa izango da, gutxienez.

**Arrantza egiteko modua:** Arrantza jaurtiketakoa izango da. Gehienez hiru amu dituen kanabera bakar bat erabiliko da.

**Piezak:** 100 gramo baino gehiago pisatzen duten pieza guztiak onartuko dira, korkoia eta aingira izan ezik.

**Puntuazioa:** Onartutako piezek pisatzen duten gramo bakoitzeko puntu bat lortuko da.

**Biltzeko tokia:** Jesus Maria Leizaola pasealekuan, Kursaal ondoan, egongo den etxetxoan, proba hasi baino orduete lehenago (09:00 orduetan).

##### 4. Pisatzea:

Gipuzkoako Arrantza Federazioak pisatzeko makinak jarriko ditu zenbait puntutan. Arrantzaleak, pieza bat hartzen duten bakoitzean, makinarik gertuenera hurbilduko dira eta bertan pisua apuntatuko zaie. Arrantzaleek hartutako piezei ahalik eta min gutxien egiten saiaturiko dira eta, pisatu ondoren, itsasora bueltatuko dituzte. Pisatzeko makinetan aurkezten ez diren piezak ez dira aintzat hartuko. Lehiaketa amaierako seinalea entzun orduko, arrantzaleak Jesus Maria Leizaola pasealekuko kontrol postura hurbilduko dira (Kursaaleko kaimuturra).

## 5. Epaimahaia:

Federazioko kideek osatuko dute.

## 6. Trofeoak:

Helduen eta haurren kategorian, lehen, bigarren eta hirugarren postuak lortzen dituztenei trofeo bana eta arrantzako materiala emateaz gain, piezarik handienarengatik trofeoa eta arrantzako materiala ere emango zaie. Haurren kategorian, saridunak izan ez direnei domina banatuko zaie. Sariak proba amaitu eta epaimahaia arrantzale guztien txartelak egiaztatu ondoren banatuko dira.

## 7. Izen ematea:

Aldez aurretik izena eman nahi duten lehiakideek Gipuzkoako Arrantza Federaziora jo beharko dute edo Donostia/San Sebastián Festak-en <https://astenagusia.donostiakultura.eus> web orrialdean **PARTE HARTU atalean** apuntatu daiteke. Epea oinarri hauek argitaratzen direnean hasi eta abuztuaren 14an amaituko da. Proba hasi baino ordu bete lehenagotik eman ahal izango dira izenak lehiaketa egiten den tokian bertan, hau da, Jesus Maria Leizaola pasealekuan (Kursaal ondoan) egongo den kontrol postuan.

Donostia, 2024ko martxoa